



Ikusi-makusi... zer ikusi?

|| Etsaien kontra borrokatzeko bidali gintuzten, ez elementuei aurre egiteko". Historiak emandako irakaspeneak, nonbait, ez dituzte aintzakotzat hartu EEBBetako Armadan eta orain ari dira egindako hutsaz ohar-

B-2 hegazkin ikustezina, ikustezina eguraldia lagun.



tzen. Garai batean "Armada Garaitezinari" gertatu zitzaion eta orain "Hegazkin Ikustezinari". B-2 izeneko hegazkina azken urteotako proiekturik garestienetakoa izan da. Etsaien radarren aurrean ikustezina da kanpoan ezarritako geruzari esker, argi-seinale guzti-guztiak zurgatzen dituen plastiko eta metalen nahasketa bereziaz egindako ezku-tuari esker, hain zuzen ere. Euriaren, hezetasunaren eta beroaren aurrean, ordea, B-2 hegazkin ikustezinak ez du ezertarako balio... etsaien radarren aurrean nabarmen-nabarmen agertzen baita, bere luze-zabal osoan. Praktikan, bada, bitxikeri modura erakusteko baino ez du balio izango B-2ak, nekez gertatuko

baitira balizko interbenzio-garaian hegazkin "apetatsuak" behar dituen eguraldi-baldintzak.

la 45 bilioi dolar inbertitu ditu EEBBetako Armadak iraultzailea omen zen proiektu honetan. Agintari militarrek ziotenez, gaitasun militar eta estrategiko itzela emango zien hegazkin ikustezinak eta izan ere, halaxe ei da giro lehorra dagoenean; euria egiten duenean, ordea, jostailu garestia baino ez da.

Kablerik gabeko igogailua

Schindler etxeak prestatu duen igogailu berriak, gora igotzeko kableen ordez, lau gurgil erabiltzen ditu. Izan ere, Schindlermobilea igogailuak poliuretanozko lau gurgil ditu etxeetan bertikalki gora joateko, baina eraikinak gehienez zazpi pisukoa izan behar du. Aluminiozko errail bertikalen artean dago igogailua eta lau gurgilei



Schindlermobilea, kablerik gabeko igogailua.

kabinaren azpian finkatutako motore/erreduttore taldeak eragiten die. Gurgilak malguki indartsuz daude errailetara itsatsita. Hain zuzen errailak grabatuta daude eta aterako zimur horiek dira kabinaren pisuari eusten diotenak. Errailetan olio baldin badago ere, ezinezkoa da kabina behera erortzea. Igogailu hau oso merkea da eta gehienez bi egun behar dira instalatzeko.

Jausgailu bereziak

Segurtasuna dela eta, hegazkinetik jausgailuaz gutxienez 400 metroko altitudetik jauzi egiten da normalean. Bereziki prestaturiko soldaduek 250 metroko altitudetik jauzi egitea lor dezakete, eta agian 200 metroko altitudetik ere bai (1983. urtean, adibidez, Estatu Batuetako jauskariak Grenada irla horrela inbaditu zuten). Hortik behera ez dago jauzi egiterik. Britainia Handian, ordea, 75 metroko altitudetan irekitzen den jausgailua probatzen ari dira, etsaien radarrek detektatu gabe tropak lurreratu ahal izateko. Irekitzen denean jausgailuak ez du kupularen forma hartzen, eraztun-erako flotagailuarena baizik. Lau segundo behar ditu puzteko eta, ondorioz,

30 metro inguru gertzen dira jaisteko.

Britainia Handian probatzen ari diren jausgailuek eraztun forma dute.



Argazki numerikoak inprimatzen

Argazki-kamera numerikoak garatzen ari direlarik, inprimagailuak fabrikatzen dituzten etxeak bereizmen handiko aparatuak eskaintzen hasi dira. Gehienetan subli-



Bereizmen handiko argazki-kamerak eskaintzen hasi dira jada.

mazio termikoz funtzionatzen dute. Argazkiak diseinu bereziko orrietan, orri arruntetan edo itsasgarrietan inprima daitezke. 16,7 milioi koloreko aukera dago horretarako.

